

noaua

**Kide berriz osatu da
Zubietako Herri Batzarra**

**100 euroko bost sari jokoan,
Hurbilagoren ekimen
berrian**

**Pirinioetako irteeran izena
emateko azken egunak**



**Elkartasuna
nagusitu zen Uxue Trailean**



ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019 (ZUZENDU NOAUA KO EGUTEGITIK)

UZTAILAK >>>>> 14, 28
ABUZTUAK >>>>> 11, 25
IRAILAK >>>>>> 8, 22
URRIAK >>>>>> 6, 20
AZAROAK >>>>>> 3, 17
ABENDUAK >>>> 1, 15, 29



Lukainategi Erretegia



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera hoberenen artean kokatzen gaitu.

Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldapatik gora kotxez 3 minutu!

Asteazken zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta bikainaz gozatzeko aukera duzue.

Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44

Albisteak iruditan



Esperientzia Eskolako parte hartzaileek lagun arte giro ederrean amaitu zuten ikasturtea, Nafarroa aldera egindako irteerarekin. Oteiza Museoa, Garesen eta Lizarran izan ziren. Argazkiaren egilea: Maria Jesus Etxeberría.

Laburrean

1955ean jaioetakoen kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaioetakoek. “Egun pasa egin-go dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatuz. Jakinaren gainean izateko. Izena irailean eman beharko da”.

1979an jaioetakoen kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa bazara eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

1958an jaioetakoen bazkaria

Irailaren 7an larunbata bilduko dira bazkaritarako Antxetan. Izen-emate epea: abuztuak 30 baino lehen. Izena emateko 50 euroko ordainketa egin, Laboral Kutxaren ES 86 3035 0140 3814 0003 2040 kontuan. Norbere izen abizenak adierazi.

noa


Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaueus // www.noaueus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubieda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Jon Galbete.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Imanol Ubeda

Collage eder bat

Orain hilabete aurkeztu zuen Koldo Izagirre idazleak *Bertsoaren harria* (Lanku) izeneko liburua. Bertsolariei eskainitako eskulturak izan ditu abiapuntu. Zenbatzen hasita, 21 dira Euskal Herrian jasoak izan diren *oroigarriak*. As-teasun Pello Errota, Leitzañ Lasarte, Hernanin Txirrita, Oartzunen Uztapide, Ahetzen Mattin, Bilbon Balendin Enbeita... “Bertso-harriak dira, bertsolaritzaren ondare fisiko eta sinboliko bat osatzen dute”, Koldo Izagirrek berak liburuaren hitzaurrean dioenez. “Harri horiek hartu

ditut abiapuntu lan hau egiteko”.

Udarregik ere badu harri bat Usurbilen, pentsatzen hasiak izango zarete. Hala da. Remigio Mendiburu eskultoreak Udarregiren omenez egin zuen artelanak atal propioa du Koldo Izagirreren liburuan: *Festa handia egin zuten hona ekarri nindutenean. Loreak, aurreak, bertsoak... Nolako bertsoak!*

Liburuari forma emateko garaian, hiru izan dira ibili dituen bideak. Narrazioa, bertsoa eta irudia. “Harriak berak dituzu mintzo: zenbat bertsolari, hainbat narratzaile. Eta batetik

bestera hariak amaraunean”.

Fikzioa liburuaren lotune nagusia izanik ere, bertsoa bera izan da kontakizun askoren pizgarri. Eta bestetan, kontatutakoa izan da bertsoa eskatu diona. “Hau ez duzu antologia bat beraz, bertsoaren eta bertsolaritzaren historiaren zati anitzez egindako saioa baizik, hitzak bertsolaritzan duen adieran”, egileak aditzera eman duenez.

Harriak ez dira mintzo diren bakarrak. Argazki bidez, bertsolariei eskainitako eskulturak batu ditu liburuan. Koldo Izagirrek berak egin ditu

argazkilari lanak.

Bertsolaritzaren historiaren zati bat islatu du bertsoz, irudiz zein fikzioz. Bertsolari bakoitzeko narratizio bana idatzi du. Hogeita bat kontakizun osatu ditu guztira. Bibliografia oparoa baliatu du horretarako: pasarte historikoak, datu errealak, bertsoak, pasadizoak... Fikzioaren bitartez josi ditu txatal denak.

Koldo Izagirreren *Bertsoaren harria* (Lanku) liburua badu umoretik, badu historiatik, badu ironiatik, badu asmakizunetik. Zirto festa. Collage eder bat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegoza | Luis Aranalde | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Ika-mika

Uxue Trail

Phelan Mcdermid elkartetik eta bereziki, Uxueren familiaren partetik balantzea egiteko unea da.

Aurreko larunbatean Usurbilen bizitako hitzez adieraztea oso zaila da. Herri guztiaren esku hartzea, bertan gertatu zen giroa, jasotako indar eta animoak izugarriak izan dira. Aurreikusitako asmoak bete eta gainditu egin dira. Gertatu denaren aurrean helburu ekonomikoak, nahiz eta uste bai-

no gehiago lortu dugun, bigarren plano batean geratu dira guretzat. Gure etxeko txikiak jendearen onena azaleratu duela ikusteak oso harro sentiarazi gaitu.

Esker oneko hitzak besterik ez dauzkagu. Boluntario lanean ibili den orori esker mila, bidegurutzetan egon direnei, lasterketan jan edanak prestatzen eta eskaintzen, lasterbideak garbitu eta gozatzeko prestatu dituztenei, helmugan

lasterkariak zaintzen ibili direnei, argazkilariei, DYAKo lankideei... Dirutan edo produktuen bitartez lagundu duten kolaboratzaile guztiei, mila esker. Modu berean, esker mila instituzioei, komunikazio hedabideei, sare sozialez arduratu direnei eta Dimension agentziari bere lan bikainagatik... Guztioi eskerri asko, zuen laguntza ezinbestekoa izan zaigu hainbeste jenderengana iristeko.

Baina bereziki eskertu nahi

ditugu ideia amestu eta lan talde bikaina osatuz, astero bere denbora eta lana oparituz, proiektu hura gauzatu dutenak. Bihotzean gordeko dugu larunbatean gertatu zena.

Uxuek, bera bezalako ume txoekek egiten dakiten modura, muxuak eta besarkada beroa bidaltzen dizue. Esker mila guztioi!

Korrika entzuten zaigulako.

Uxue Traileko antolatzaileak.

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

PATRIKUA
jateetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 • © 688 690 361

Ugaitz Agirreren ikerlana, UEU-ren IkerGazteren lan bilduman

UEUren 47. udako ikastaroen baitan, Jakin Jardunaldia ospatuko da ostegun eta ostiral honetan Usurbilen. Maitasuna politikoa da lelopean, “maitasunaren ideologiak geure buruak, geure harremanak eta geure etxe eta kaleak nola eraikitzen dituen aztertuko dugu”, antolatzaileek aditzera eman dutenez. “Ikus dezagun nolako den maitasunaren ideologiaren eraikuntza eta sortzen duen arkitektura”, hortxe UEU-k, Jakinek eta Usurbilgo Udalak hirugarren urtez antolaturiko hitzordua muina.

UEU udaberrian hirugarren IkerGazte antolatu eta ospatzen dator udako ikastarootara. Izenak dioen moduan, euskaraz lan egiten duten Euskal Herriko ikertzaileen topagune bilakatu zuen Baiona maiatza amaieran. Kongresuaren helburua argia zen; ikerlari euskaldunen lana ezagutaraztea. Kongresu hartan aurkezturiko lanei lotutako artikuluekin, arlokako liburuxkak osatu ditu UEU-k. Giza zientzietakoan usurbildar ikerlari baten lana irakur dezakegu; “Tipi-Tapa euskararen erritmoan: Korri-



“Tipi-Tapa euskararen erritmoan: Korrikako abestien bilakaera, 1980-2019” ikerlana osatu du usurbildar gazteak.

UGAITZ AGIRRE

“Ikerkuntza munduan segi nahi luke.

Hau bukatuta, ez dakit musika izango den baina kulturaren esparruan ikertzen segi nahi nuke”

kako abestien bilakaera, 1980-2019”. Egilea, Ugaitz Agirre Zapirain.

Joan den apirileko 21. Korrikaren atarian Sutegin eskaini zuen hitzaldi musikatu gai honen inguruan. IkerGazten horren inguruko lanek. “Masterrean nengoen. Ez nekien zer gai jorratu. Festak ziren, La Polla Records jarria

zegoen txosnetan, denak abesten. Zergatik oraindik halako abestiak?”, galdetzen zion bere buruari Ugaitzek. Eta hala, euskal kontrakultura ikertzea erabaki zuen Ugaitzek. Lehenengo abestitik, “nola joan den musika eta hitza aldatzen”.

Interesgarria deritzo IkerGazte kongresuaren funtzioa, “gazte asko daude ikerketak euskaraz egiten dituztenak, baina gero plazaratzerako orduan beste hizkuntzetara jo behar izaten dute”. Horregatik dio, IkerGazteri esker, euskaraz egindako ikerketa hizkuntza berean plazaratu ahal izatea bada “espazio bat zu zaren moduan aurkezteko”. Ikerlaren jatorrizko hizkuntza ez

galtzeko.

Eta ikerlarien topagune izatera ere badu kongresuak eta interesgarri deritzo Agirrek, “azkenean komunitatean zer gertatzen den jakitea. Askotan bakoitza bere liburutegi edo laborategian dago, bere munduan eta inguruan besteak zer egiten ari diren ez dakigu”. Horregatik dio IkerGaztek ahalbidetzen duena, aberastasuna, ideien kontrastea eta ikerlarien elkar ezagutza dela dio.

Beken pendiente

Ikerlariak bizi duten errealtateaz galdetu diogu Agirreri. “Beken eta diru-laguntzen pendiente” bizi dira. Giza zientzien eta gainerako arteen bada ordea desberdintasun bat bere esanetan. “Zure lana laborategian bada, probak egitea. Nire kasuan marko teoriko bat egiteko 50-100 liburu irakurri behar ditut, horrek eskatzen duen denborarekin”. Eta berak dioenez, “geroz eta denbora murriztagoa jartzen dute tesia egiteko”.

Ikerkuntza munduan segi nahi luke. “Hau bukatuta, ez dakit musika izango den baina kulturaren esparruan ikertzen segi nahi nuke”.

UEU-Jakin jardunaldia: “Maitasuna politikoa da”

Uztailak 11, osteguna

- 08:30-09:00 Harrera eta dokumentazio banaketa.
- 09:15-09:30 Ongietorria.
- 09:30-10:15 Lorea Agirre Dorronsoro: Maitasunaren ideologiaren eraikuntzak eta deserai-kuntzak.
- 10:15-11:00 Oihane Ruiz Menéndez: Maitasunaren ideologia eta hirigintzaren arteko

lotuneak.

- 11:00-11:30 Kafe tarteak.
- 11:30-12:15 Leire Milikua Larraamendi: Arkitektura, desira eta sexualitatea.
- 12:15-13:00 Saio irekia.
- 13:00-15:00 Bazkaria.
- 15:00-17:00 Esperientzien plaza: Elizondo, Bakio, Usurbil.
- Nora Salbotx Alegria: Umeak herriak eraikitzen (Elizondo).

-Ula Iruretagoiena Busturia: Transbertsalitatea eta afektuak udalerrri plangintzan (Bakio).

-Jone Miner Aginaga: Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa (Usurbil).

Uztailak 12, ostirala

- 09:00-09:45 Mari Luz Esteban Galarza: Maitasuna erdi-

gunetik kanpo.

- 09:45-10:30 Abaraska kolektiboa: Etxebizitza eredua auzitan jartzen (Donostia).
- 10:30-12:00 Tailerra eta kafea: Etxebizitza parekidea eta kooperatiboa nola eta nondik?
- 12:00-13:00 Partekatze saioa.
- 13:00-13:30 Bea Egizabal Ollokiegi: Klownklusioak.

“Udaloi Zubietaren herri izaera eta eskaerak kontuan hartzea eskatuko genizueke”

Azken asteotan gainerako erakundeekin gertatu den moduan, maiatzaren 26ko hauteskundeetako emaitzetatik jaio da Zubietako Herri Batzar berria. Uztailearen 3an ospatu zen eratze ekitaldia Kaxkapen.

2019-23 legealdirako Zubietako Herri Batzar berriaren eratze ekitaldiak batzarkideak, eta Usurbil eta Donostiako Udaletako ordezkariak bildu zituen hainbat zubieta-rrerekin batera; tartean, aurreko legealdian batzarkide izandakoak. Aurreikusitako moduan, lehenbizi herri batzarra bera eratu zuten, maiatzaren 26ko hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztu eta mahaian ziren bost batzarkideekin.

Zubietako legealdia bitan egon ohi da zatitua; lehen bi urteetan Usurbil aldeko hautagai bozkatuena izan ohi da alkate, bigarrenean Donostia aldekoa. Usurbili zegokion honenbestez Zubietako alkate berria izendatzea. Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak zumia helarazi zion 2021. urtera arte Zubietako alkate izango den Haritz Arrizabalagari. Aginte zumia eskutan, eta kamera atzean lan egitera jendaurrean aritzera baino ohituagoa dagoela adierazita, batzarkide ohiak eskertu nahi izan zituen alkate berriak lehenbizi, “lau urteotan egingadako lan guztiagatik”.

Herri batzar berria berak eta lau batzarkideek osatuko dute, guztiak kide berriak, “inoiz ez dugu halako kargurik izan. Erronka handia da guretzako”. Zubietarrei zuzenduta adierazi zuen, “badakigu zaila izaten dela denak gustura izatea, baina saiatuko gara zubieta-rreren eta Zubietaren alde egiten”. Eskaera bana luzatu zien



Datozen bi urteotan, Haritz Arrizabalaga izango da Zubietako alkatea.

HARITZ ARRIZABALAGA

“Herri batzarraren funtzioa, Usurbil eta Donostiaren aurrean Zubietaren ahotsa izatea da. Horretarako bai eskatuko nizueke zubietarroi, gudan konfiantza jartzea. Lasai asko adieraztea zuen proposamenak, kezka... dena delakoa. Herri txikia gara eta denok elkar ezagutzen dugu. Zubietari ahotsa jartzeko gaude”

zubietarrei eta Donostia zein Usurbilgo Udalei. Zubietarrei; “herri batzarraren funtzioa, Usurbil eta Donostiaren aurrean Zubietaren ahotsa izatea da. Horretarako bai eskatuko nizueke zubietarroi, gudan konfiantza jartzea. Lasai asko adieraztea zuen proposamenak, kezka... dena delakoa. Herri txikia gara eta denok elkar ezagutzen dugu. Zubietari ahotsa jartzeko gaude”.

Usurbil eta Donostiako Udalei zuzendu zitzaizkien segidan.

“Udalei Zubietaren herri izaera eta gure eskaerak zein proposamenak kontuan hartzea eskatuko genizueke”.

Eneko Goia: “Auzoaren alde egiten duzuen apustu honengatik eskerrak ematea”

Ekitaldian hitza hartu zuten baita Donostiako eta Usurbilgo alkateek. Eneko Goiak batzarkideak eskertu nahi izan zituen, “zuen eskuzabaltasuna. Badakit horrelako gauzetan inplikatzeko ez da erraza izaten”. Animu mezua helaraztearekin batera, azpimarratu nahi izan zuen, “auzoaren alde egiten duzuen apustu honengatik eskerrak ematea”. Elkarlanerako prestasuna adierazi zien zubietarrei. Aurreko legealdian, “gauza batzuk lortu genituen, beste batzuk ez, pendiente geratzen zaizkigu. Hurrengo lau urteotan lortu ez ditugun horiek guztiak elkarren artean lortzen saiatzea espero dut”.

Agurtzane Solaberrieta: “Guretzako Herri Batzarra bidaide garrantzitsua da”

Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta ere zorionak eta es-

kerrak helarazi zizkien Zubietako Herri Batzarreko kideei, bertan “parte hartzeko konpromisoa adierazi eta borondatea agertu duzuelako”, are gehiago jakinik zioenez, “geroz eta zailagoa baita halako erakundee-tan ardurak hartzea”.

Herri eta auzoen Usurbil anitza aldarrikatu zuen. “Gure bokazioa, auzo guztien izaera errespetatzea da, auzo eta herrietan bizi diren herritarren bizi kalitatea hobetzea”. Horretarako garrantzitsutzat jotzen du Solaberrietak, “zuen ahotsa gure udal jardunean bermatua geratu dadin benetako bitartekoak sortzea. Norabide horretan guretzako Zubietako Herri Batzarra interloktore eta bidaide garrantzitsua da”.

Elkarlanerako deia

Elkarlanerako deia egin zuen, besteak beste, plan orokorraren lanketan. “Guri plan horren idazketa eta antolaketan Zubietako Herri Batzarrarekin eta zubietarrekinekin eskuz esku aritzea gustatuko litzaiguke”. Administratiboki bitan zatitua dagoen Zubieta bakarraren ikuspegi horrekin.

“Nora doa Zubieta?”

Donostiako Udalarirenekin elkarlanerako gonbita luzatu zion Solaberrietak. “Jakin badakit Zubietarako ez ditugula ikuskera eta planteamendu berak. Baina hausnarketaren eta eztabaidaren bidez, Zubietak merezi eta behar dituen planteamendu komunak, adostasunak bilatzea nahi genuke”.

Zenbait galderei elkarrekin erantzun eta erabakiak hartzeko garaia dela gogorarazi zuen: “Nora doa Zubieta? Zer nahi dugu? Zer egin nahi dugu zubietarrekinekin?”.

Bost kide berriek osatuko dute Zubietako Herri Batzarra

Udaberrian abiatu zen Herri Batzar berria osatzeko prozesua uztailearen 3an eratze ekitaldiarekin borobildu zuten Zubietan. Aurreko legealdian baino batzarkide bat gutxiago izango dute, bost guztira. Guztiak kide berriak.

Lau urteotarako kargua hartu zuen, maiatzaren 26ko hauteskundeetara aurkezturiko ondoko irudiko boskoteak, Kaxkapen ospatu zen ekitaldian. Haietatik bi Usurbil aldekoak: Haritz Arrizabalaga Garmendia eta Urtzi Alberdi Zulaika. Hiru Donostia aldekoak: Jon Andoni Arroyo Arocena, Eneko Izagirre Kastresana eta Ignacio Izagirre Zuloaga.

Dakizuen moduan, Zubietan bi udalerriren artean zatitua dagoenez, bi batzarkide izan-



Bi ordezkari Usurbil aldekoak izango dira: Haritz Arrizabalaga Garmendia eta Urtzi Alberdi Zulaika. Hiru Donostia aldekoak: Jon Andoni Arroyo Arocena, Eneko Izagirre Kastresana eta Ignacio Izagirre Zuloaga.

go ditu Usurbil aldeak, hiru Donostia aldeak. Batean eta bestean bozkatuena izandako

hautagaiak izango dira alkate datozen lau urteotan; 2019-21 urte artean Usurbil aldekoa,

Haritz Arrizabalaga, 2021-23 urte artean Donostia aldekoa, Jon Arroyo.

Errausketaren aurkako aldarri artean hartu zuten zubietarrek Donostiako alkatea

Zubietako Herri Batzar berriaren eratze ekitaldia Zubietan gainean eraikitzen aritu diren erraustegia martxan jartzekotan dela ospatu zen joan den astean. Administratiboki bitan zatitua dagoen herriko Donostia aldeko lurretan eraiki dute hondakinak erraustuko dituen azpiegitura toxikoa. Errausketaren aurkako banderolekin egin zioten harrera zubietarrek Donostiako alkate Eneko Goiari.

Ekitaldi amaieran, zubie-

tar batek eskura eman zion errausketaren aurkako banderola hiriburuko alkateari, gaia-ri buruz hausnartzea galdegi-tearekin batera.

Erraustegia udan probaldian

Gogoan izan, behin eraikitze lanak amaituta proben fasean izango dute erraustegia uda honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikuspenak betetzen badira behintzat, urrirako martxan, ke toxikoa isurtzen ikus dezakegu Zubietan gaine-ko erraustegia.



Zubietar batek eskura eman zion errausketaren aurkako banderola Eneko Goia Donostiako alkateari.

Bi berri Kabienetik

Uztailaren 5ean amaitu zen euskarako eta aisialdiko udal diru-laguntzak eskatzeko epea, baina adi; Hasiz Hazi beka deialdira eskabideak aurkezteko tarteak zabalik segiko du irailaren 30era arte. Gogoan izan, beka deialdi honek urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetuko dio Kabiene Elkarlan Gunean, aurtengo enpresa proiektu bat izan eta Beterri-Buruntzako udalerrietakoren batean erroldatu dagoen ekintzaileari. Informazio gehiago, maiatzaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Zuzendari berria Elhuyarrek

Osinalde industrialdean egoitza duen Elhuyar Fundazioak zuzendari berria du: Jon Abril Olaetxea. Zazpi urtez postu horretan aritutako Leire Cancio



Elhuyar Fundazioak zuzendari berria du: Jon Abril Olaetxea.

BEKA DEIALDIA

Hasiz Hazi beka deialdira eskabideak aurkezteko epeak zabalik jarraituko du irailaren 30era arte

Orietaren lekukoa hartuko du. 2012az geroztik partaidetzaren alorrean Elhuyar Aholkulari-

tzako kidea izan da kulturgingintzan esperientzia zabala duen Abril. "Eskerrik asko, Leire, kabienekideekin beti hain abegikorra eta atsegina izateagatik. Eta zorte on Jon Abrili hasiko duen etapa berri honetan", adierazi diete Elhuyarrek bizi-lagun dituen (eraikin berean daude) Kabiene kideek.

Oporren aurreko azken aldizkaria plazaratuko dugu datorren astean

Oporren atarian gara NOAUA!n ere. Gogoan izan, esku artean duzuen 789. zenbaki hau duzue udako azken aurreko astekarria. Uztailaren 19an plazaratuko dugu azkena. Ordurako ohar edo zorion agurrik baduzue, uztailaren 15a baino lehen bideotatik helarazi: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321. Udako etenaldiaren osteko lehen NOAUA! irailaren 6an argitaratuko dugu.

Bazkidetza kobraketa

NOAUA! K.E.-ko bazkideentzako oharra. Urtero moduan, uztailaren 15ean hasiko gara bazkidetza kobratzen.

"Orain presoak" bizikleta martxa Usurbildik igaroko da

Inderrean den espetze politika eta salbuespen neurriak bertan behera uztea eskatzeko Orain Presoak aldarriaren bueltan bizikleta martxa antolatu du Sarek uztailaren 19tik 21era, Luhusotik Gernikara. Usurbildik igaroko da uztailaren 19an. 17:00etan Atxegalden egingo zaio harrera N634 errepede alboan.

"Luhuso, non ETaren armagabetzea eta disoluzioa ahalbidetzeko lehen urratsak eman ziren, gizarte zibilaren konpromisoaren sinbolo bilakatu dena eta Gernika, bizikidetzaren eta bakearen eredu eta sinbolo. Konponbidean pausoak emateko unea dela uste dugulako, elkarbizitzaren eta bakearen sinbolo bilakatu diren bi herri hauek lotu nahi ditugu aldarrikapenez beteri-



"Pedalkadaz pedalkada, elkarbizitzaren eta bakearen aldarria zabaldu asmo dugu Euskal Herriko herrietan zehar", Sarek aditzera eman duenez.

SAREK ANTOLATUA

Uztailaren 19an iritsiko da martxa. 17:00etan, Atxegaldeko errepede parean egingo zaio harrera

ko itzuli batekin", Sarek berri eman duenez. Eta honenbestez,

"pedalkadaz pedalkada, elkarbizitzaren eta bakearen aldarria zabaldu asmo dugu Euskal Herriko herrietan zehar".

Herri guztietan euskal presoek egun bizi dituzten urraketak landu nahi dira. Sarek gogorarazten dutenez, "egun oraindik espetxean di-

ren 254 euskal presoetatik %65a 600/1000km-tara urrundua dago eta %21 400/590 kmtara".

Usurbildik uztailaren 19an

Hiru etapa izango ditu itzuliak (Luhuso-Zarautz; Zarautz-Lekeitio; Lekeitio-Gernika). Bidean hainbat geldialdi eta ekimen iragarri dituzte. Usurbildik zeharkatuko du lehen egunean, arratsalde partean 16:45ean Donostiatik irten ostean. 17:00etan Atxegalden N-634 errepede parean egingo zaie harrera. Usurbildik eta Orio zeharkatuko ditu itzuliak. Zarautz izango du lehen etapak helmuga.

Ekimen solidario honetan parte hartu nahi dutenek uztailaren 16ra arte eman ahalko dute izena, itzuli osorako edo etapaka. Informazio gehiago: sare.eus/orain-presok/tourra/

USURBILen

bizi eta erosi

BALIO HANDIA DAUKA
HERRIKO DENDA TXIKIETAN EROSTEAK!

ADI EGON

Erosketak Usurbilen egitea
aukeratzen duten familiak
sarituko ditugu.

**Uztaitetik
aurrera**

hurbilag

ZURE FIDELTASUNAK

saria du

**Zozketarik
gabe!**

100*€ko
5 sari

* 100eko opari txartela USURBILgo
establimenduetan erosteko.



Usurbilgo Udala



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak

Gizonezkoen arteko eskupilota txapelketako finalak



Uztailaren 2an jokatu ziren frontoian, Santxabel jaiei aurreko asteetan jokoan izandako gizonezkoen eskupilota txapelketako finalak. Argazkian dira finalistak. Hemen emaitzen berri:

Gazteak:

Xabier Lasa-Mikel Etxeberria (Tolosa) 22-6 Mikel Aranburu-Eneko Zalacain (Oiarpe).

Helduak:

Iban Garcia-Aaron Arbizu (Iruñea) 6-22 Xabier Santxo-Iosu Bergera (Usurbil).

Pagazperen errifa zozketa



Jaietako egun handian Pagazpe Elkartek egindako errifa zozketako zenbaki sarituak honako hauek izan ziren: 3.032. Saritua, Luis Mari Irazusta. Saria, urdaiazpikoa (ezkerrean da). 2.970. Saritua, Lurdes Lizeaga. Saria: produktu otarra (eskubitarra).

Lehia bizia jaietako mus txapelketan

Uztailaren 2an txosnetan jokatutako karta jokoan lau bikote heldu ziren final handira:

- 1-Aizpe-Txoko.
- 2-Koldo-Torregarai.
- 3-Eneko-Iñaki.
- 4-Pako-Karlos.



Elkartasuna, Uxue Traileko garaile

Elkartasunak goia jota amaitu zen, estreinakoz herritar talde batek antolatuta larunbatean ospatu zen Uxue Trail mendi lasterketa.

Lasterketa solidarioa, herriko Uxue Martin gaztetxoak duen Phelan-McDermid sindromearen inguruko sentsibilizazioa sustatu eta sindrome honen ikerketarako ahalik eta laguntza gehien bildu nahi baitzuten. Aipatu moduan, elkartasunak irabazi zuen txapelketa. Antolatzaileak esker oneko eta balantze ezin gozoagoa eginez amaitu zuten hitzordua.



Antolatzaileak esker oneko eta balantze ezin gozoagoa eginez amaitu zuten hitzordua.

300 lasterkari

Ezohiko jaien osteko larunbata bizi izan genuen. Txupinazo propioa izan zuena.

Antolakuntzak Dema plaza pareko irteera puntuan abiatzeko prest ziren ehunka parte hartzaileak lasterketari ekiteko

jaurti zuena. Ia 300 lasterkarik osatu zuten Andatzako buelta. 143 lagunek 11 kilometroko ibilbide motza, 134 lagunek 20 kilometroko luzea. Ibilbide motzean sailkatu diren lehen bi emakumezkoak Usurbilgoak izan ziren.

Eta izen emate gehiago ere izan ziren, orotara parte hartzea 500 lagun ingurukoa edo gehiagorako izatea ahalbidetu zuten dortsal solidarioei esker. Lasterketan zuzenean parte hartu beharrik izan gabe, dortsal solidarioa erosi zutenek borondatez emandako diru kopurua, aipatu sindromera ikertzeraz bideratuko da.

Usurbildarren markak

Ibilbide motza (11 km)

Emakumezkoak

- 35-Irati Larrañaga, 1:11:47 (Usurbil).
- 36-Izadi Azkonobieta, 1:11:47 (Usurbil).
- 40-Mari Carmen Seijas, 1:13:23 (Azkoitia).

Gizonezkoak

- 1-Josu Urrestarazu Garcia, 0:56:13 (Idiazabal).
- 2-Aitor Regillaga Beloki, 0:56:55 (Tolosa).
- 3-Haritz Zubillaga Astiasaran, 0:57:04 (Zizurkil).
- 12-Ion Korta Arregi, 1:02:33.
- 22-Peio Alkorta, 1:07:10.
- 48-Tito Izaguirre Godineau, 1:16:13.
- 51-Julen Lertxundi Olazabal, 1:16:55.

- 53-Uxue Fernandez Lasa, 1:17:23.
- 57-Alfonso Palacios Garnateo, 1:17:57.
- 71-Iñaki Sudupe Nogues, 1:20:45.
- 78-Oliver Garcia Linares, 1:23:27.
- 79-Jon Arriaga Lertxundi, 1:24:04.
- 85-Lucas Arrospide Jauregui, 1:25:39.
- 91-Pello Sasiain Martinez, 1:26:44.
- 99-Enrike Huizi Olaizola, 1:28:30.
- 101-Joseba Irazabal Arrastio, 1:28:58.
- 102-Javi Dominguez Martin, 1:28:59.
- 106-Alfonso Vidal, 1:31:01.
- 109-Erasmus Erro Aizpurua, 1:31:12.
- 117-Eli Eizagirre Bruño, 1:36:55.
- 118-Maitane Eizagirre Bruño, 1:36:55.
- 119-Xabier Orbegoza Mujika, 1:37:20.
- 120-Arkaiz Rezola Mendikute, 1:37:20.
- 121-Garazi Lizaso Manterola, 1:37:21.
- 122-Imanol Mujika Telleria, 1:37:21.
- 123-Zuriko Lataillade, 1:37:23.
- 128-Joana Lertxundi Beristain, 1:40:03.
- 129-Mikel Aparicio Prados, 1:41:59.

- 130-Asier Portularume, 1:42:35.
- 132-Ander Ayuso Casanova, 1:43:29.
- 136-Andoni Arruti Beldarrain, 1:43:59.

Zubieta

- 133-Ander Jauregi, 1:43:31.

Aginaga

- 81-Ander Aristegi Otamendi, 1:24:35.

Ibilbide luzea (20 km)

Emakumezkoak

- 34- Alizia Olazabal, 2:03:31 (Irun).
- 36- Tanit Perez de Leceta, 2:03:48 (Donostia).
- 37- Nerea Amilibia Arruti, 2:04:24 (Zarautz).

Gizonezkoak

- 1- Imanol Larrañaga, 1:39:06 (Azkoitia).

- 2- Jon Baleztena Azpeitia, 1:40:00 (Antzuola).
- 3- Jokin Gijarro Iruretagoiena, 1:42:38 (Zumaia).

- 10-Martin Larrañaga, 1:50:08.
- 11-Josu Oiarzabal Zapiain, 1:50:29.
- 16-Francisco Javier Rabano, 1:54:20.
- 21-Iñaki Añorga Unanue, 1:56:51.
- 22-Andoni Labaca Lizarazu, 1:57:11.
- 40-Rosa Uribe Navarro 2:04:46.
- 49-Eneko Mujika Mugerza, 2:10:03.
- 51-Juanjo Estevez Martin, 2:10:44.
- 56-Igor Maiz Pagola, 2:13:55.
- 69-Borja Pulido 2:18:30.
- 70-Gillermo Rueda, 2:19:38.
- 72-Asier Otero Martin, 2:20:02.
- 95-Mikel Soroa del Campo, 2:28:26.
- 103-Aitor Agirre Zapiain, 2:33:54.
- 104-Agustin Molina Cuesta, 2:33:56.
- 121-Daniel Hernandez Veliz, 2:47:15.

Bi lasterketa, bi podium



Ezkerretara, ibilbide luzeko garaileak. Eskubitara, ibilbide laburrekoak. Irudi gehiago ikusgai dituzue noaueus web orrian eta gure sare sozialetan.

“Xua gurasoekin etxera” bertso sorta, 43. Bertsopaper Txapelketako sortze lan irabazlea

Espetxe zigorraren hiru laurdenak beteta, etxean behar luketen arren, Usurbildik 600 kilometrora, Valentziako Picassenteko espetxean preso segitzen dute Olatz Lasagabasterrek, Patxi Urangak eta haien alaba Xuak. Urtarrilean 3 hiru urte beteko ditu Xuak eta espetxetik irten beharko du gurasoak bertan utzita. Hirurak ez bereiztearen alde lan egiteko sortu da berriki “Xua guasoekin etxera” herri ekimena. Izenburu bera darama eta hirurek bizi duten errealitatea islatzen du 43. Bertsopaper Txapelketako lan irabazlea. Jon Aizpurua Esnaolarena da bertso sorta hau.

Bigarren saritua Uxue Fernandez Lasa eta bere “Kanpotik”, Usurbila bizitzera datorren lagun baten herri ikuspegia biltzen duen izeneko bertso sorta. Inaxio Usarralde gai jartzaille aginagarraren agindueta aritutako Miren Artetxe, Oi-



Aitor Mendiluze, Oihana Bartra, Miren Artetxe eta Julio Soto bertsolarien saioaren amaieran eman ziren ezagutzera 43. Bertsopaper Txapelketako lan sarituak.

BERTSOPAPER LEHIAKETA

“Jon Aizpurua Esnaola eta Uxue Fernandez Lasa izan ziren sarituak”

hana Bartra, Aitor Mendiluze eta Julio Soto laukoteak eskainitako uztailaren 1eko bertso saioaren amaieran eman ziren ezagutzera jaietako Bertsopaper Txapelketako lan sarituak. Guztira sei lan aurkeztu dira

43. Bertsopaper Txapelketa honetara. Sei lanon artean Aizpurua eta Fernandezek saritzea erabaki du, Joxe Kruz Labakak, Kerman Rekondok eta Jurgi Fuentesek osatutako epaimahaia.



Jon Aizpurua Esnaola eta Uxue Fernandez Lasaren bertsopaperak izan ziren sarituak. Eskubiko orrialdean dituzue bertsoak irakurgai.





Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



ETORBIDA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Xua gurasoekin etxera

Lehen lan saritua. Egilea: Jon Aizpurua Esnaola. Doinua: Atmosferatik atera eta.

Atzerri hurbil baten sortua
Ez da kasualitatea
Ez da bidaia baten erdian
Jaiotzearen zortea
Ez gurasoak atzerritarrak
Direnaren bertutea
Erabaki bat askea?
Amodio pasartea?
Da familiak zigortzearren
Kilometroen katea
Urrun jaiota etxeko denak
zigortu nahi izatea.

Zelda batean, hamabi metro,
Bi ohe eta apala
Bainu txiki bat, leiho ñaño bat
Ta biak hor nola hala
Jolaserako ta bizitzeko
Ai ama! Zenbat kabala?
Egoera anormala
Berezko balitz bezala
Xua etxean hobeto dago
Inork duda ez dezala!
Baina haur batek aberria du
Bere amaren magala.

Inor akaso, ohartuko zen,
Hutsuneren bat badela
Inork akaso ikusiko du
Egoeraren krudela
Aita bat izan badela baina
Ukatu nahi diotela
Asteroko erregela
Bi ordutako epela
Ondo dakite maitasun horrek
Ihes egiten diela
Barrote eta hormen gainetik
Aita-alabak direla.

Matematika kontu batekin
Laburtu liteke dena
3 urteak bete orduko
Heren batentzat azkena
Nahiz hiru laurden beteak izan
Hamabikoa kondena
Hamarrekin aski zena
Justizia omen dena
Ta ia seiehun kilometrora
Familiaren eskema
Hau da mendeku ta amorrutako
Ekuazio ankerrena.

Bi urte t'erdia Izarren hautsa
Xua bilakatu zela
Baten garratzak berri eziaz
Jaso zuela epela
Bi urte t'erdia usurbildar bat
Sortzez urrundu zutela
Etxe bezala kartzela
Zelda da haurraren gela
Ate kolpeak, ordutegiak,
Oihuak ta zentinelak
Hamabi metrok amarengana
Erabat lotzen dutela.

Zilbor-heste hau, hain da estua,
Erabateko lotura
Egun osoan ama-alabak
Atxikirik da ohitura
Egutegian bada ordea
Lege-artazizko muga
Kolpe lehorrezko puda
Behingoz herrirako muda
baina bakarrik etxeratuta
horren malkar da helmuga
halako zigor bat jasotzeko
haur batek zer egin du ba?

Eguneroko horri begira
Poltsa harritxoak bete da
Ikastolatik nork jasoko du?
Nork eramango parkera?
Nork negar malkoz larri denean
Muxu eman ta sosega?
Aldaketa hau kolpera
Nahiz ta bidali etxera
Motxila handi eta astun bat
Umetxoari gainera
Poltsa arintzen saia gaitzen
Ez utzi galtzen aukera.

Garai berriak hasi zirela
Esan izan dugu alai
Etxean denok, arduragabe,
Bizi gaitzekela lasai
Baina ez al da gizarte gaixo
Baten azal eta bisai
Ohe hutsak dira nonahi
Gartzeletan umeak zai
Norberak bultza dezan beretik
Ordua iritsi da ai!
Xua etxera ekar dezaten
Ta gurasoak ere bai!

Kanpotik

Bigarren lan saritua. Egilea: Uxue Fernandez Lasa. Doinua: Abokatuak deitu berri dit.

1. Atzean utziz jaioterri bat,
ezagun, lagun, famili,...
Duda ta kezka, alde batetik,
bestetik, ze kili-kili!
Oroitzapenen kutxa barruan
zenbat arantza ta lili,
aurrez antzera gertatu arren
hamaika neska-mutili,
sentimenduak bertsotan jarritz
hainbat bizipen hurbili,
bertara iritsi berri den baten
begirada Usurbili.

2. Udazkenaren atarian zen,
barru-dantza, nahastea,
bateko kaxa, besteko poltsa
ta auskalo nongo trastea.
Udal erroldan alta emanda
herrira ohitzen hastea,
aldaketaren egarri nola
maiz izaten den gaztea,
mendialdetik kostalderaino
berez bada kontrastea,
baina gutxitan sentitu izan naiz
hain ziur bezain askea.

3. Lana medio edo bisitan
etorri ohi nintzen ni lehen,
lehen asteko begiradetan,
baina, zer suma nenbilen,
jakin-minez blai batzuk galdezka
abilenetan abilen:
"ze arraroa zu hemen bizitzen",
"ta, nolatan Usurbilen?",
ze axola dio Bilbo, Hendaia,
Oion edo Errezilen,
zer dela eta esan behar diot
nori non nola nabilen?

4. Konplexua da sarri jakiten
noiz ta norengana batu,
kultur arloan nahiz kirolean
zein esparrutan kokatu,
eskaintza zabal ta hain betetik
zein jarduera hautatu,
bi gurpiletan Bordatxo edo
Andatzara abiatu,
ideia argi ta buru-janak
zein modutan orekatu,
herriz soilik ez ni ere ez dakit
ez ote naizen aldatu.

5. Arratzainera igo izan naiz
oinez arnas berri bila,
Santuenetik entzun izan dut
San Estebango ezkiak,
korrikan, lasai, joan izan naiz
Erriberatik Mapila,
Askatasuna plazan ikusi
jolasten ume koadrila,
nik ere izan dut hizketa leku
Dema plazako petrila,
martxan doa ta zertan gelditu
bizipozaren gorpila.

6. Herri hau zer zen deskribatzeko
nire aurreko gogoetan
kulturgintzaren iparra nuen
Joxan Artze ta Zumetan,
abesti baten hitzetan jaso
zen elizako paretan,
Aizkorrin jaio ta Orion hiltzen
den Oriako errekan,...
Ilusio ta asmo berriak
sartuagatik maletan
espero baino askoz sorpresa
gehiago gordeta zeukan.

7. Lehendik lagun nituen zenbait
orain are gertuago,
ezagun soilak zitezkeenak
lehen baino lagunago
ta ezezagunak zitzaizkidanak
apur bat ezagunago,
hartu-emanak sendotzen segiz
egunez egun oparo
gaur sentitzen naiz atzo baino ere
pixkat usurbildarrago.
Nolako herria eraiki nahi den
gu guztion esku dago.

8. Herri hau zer zen deskribatzeko
nire aurreko gogoetan
kulturgintzaren iparra nuen
Joxan Artze ta Zumetan,
abesti baten hitzetan jaso
zen elizako paretan,
Aizkorrin jaio ta Orion hiltzen
den Oriako errekan,...
Ilusio ta asmo berriak
sartuagatik maletan
espero baino askoz sorpresa
gehiago gordeta zeukan.

www.noaia.eus

USURBILGO ATARIA



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

“Errutinatik ihes egiteko beharretik hasi ginen”

Beran (Nafarroa) sortutako Satelitik taldea izango dugu ostegun honetako Laboaren Uztaila zikloko hurrengo kontzertuan. Jatorriz, Larrun gainean egunerokotasunetik ihes egiteko sortutako Le Trois Satellite talde handitua da Satelitik. Musika lasaia eskaintzera datoz denontzat uztailearen 11n, NOAUA!ri adierazi diotenez.

Satelitik nolatan sortzen da?

Satelitik: Errutinatik ihes egiteko beharretik hasi ginen taldean; lanetik atera, zerbeza batzuk edan eta musika pixka bat jotzeko. Gutxinaka kontzertuak eskaintzen hasi ginen kanean, Donibanen, Baionan, Bilbon. Hasieran hiru lagun, gero banda handitzea erabaki genuen unea heldu zen. Orduan Ibai Gogorza Borrokan-eko musikaria eta ekoizlea sartu zen. Berak ekoiztu zuen guren lehenbiziko diskoa. Gero gutxinaka instrumentu gehiago sartzen joan gara. Sei kide gara, baina kontzertuan bost izanen gara.

Eguneroko bizimoduaren ihesbide bezala sortutako tal-



Ostegun honetan Satelitik taldea arituko da Mikel Laboa plazan, Laboaren Uztaila zikloaren baitan.

SATELITIK

**“Soinu lasaiak dira,
akustikoan jotzen dugu.
Munduko musika
desberdinak
ukitzen ditugu”**

deak beste forma bat hartu du azkenean. Gutxinaka joan da eraldatzen. Azkenean soinu serioago bat hartu du taldeak partaide berriak sartu ahala. Oraindik guretzat ere ihesbidea da.

Ihesbide honetan zer musika sortu duzue?

Musika nahasketa handia.

Soinu lasaiak dira, akustikoan jotzen dugu. Normalki, folka edo popa jotzen dugula esaten digute baina munduko musika desberdinak ukitzen ditugu. Estiloak nahikoa hegatzeko ematen dizu. Lasaia da, bals batetik erritmo biziago edo latinoago batera jotzen ahal du. Nahiz eta duela urte pare bat edo hirutik jotzen egon ez dago estilo definiturik, ihesbide modu honetan ateratzen dena da. Momentuko nahiko soinu freskoa da.

Nolatan animatu zarete Laboaren Uztailean parte hartze- ra?

Laboa erreferente bat da, na-

hiko zentzuduna da Satelitikentzat hor jotzea. Laboaren Uztaila kolektiboko kideak ezagutzen ditugu. Iaz dei-tu ziguten ere baina ez ginen animatu ze oraindik nahiko berde ikusten ginen. Kanean jo genuen baina oraindik eskenatoki edo kontzertu bakarria izatera ez ginen ausartzen eta Joseba Irazoki egon zen gure partez.

Zer aurkituko du zuen emanal- dira doanak?

15 kanta, dugun kanta guztiak jotzen ditugu. Hiru ordu laurden edo kasik ordu batera ailegatuko den emanaldia izango da. Eta bai, musika mota honen edozein pertsona aditzera hurbiltzea laguntzen du. Bai haur eta helduek aditzen ahal dute musika hau, soinu lasaia da, eta hori du ona. Guk egiten dugun musika edo atmosfera publiko guztientzako dela.

Laboaren Uztaila

- Uztaileak 11: 22:00 Satelitik.
 - Uztaileak 18: 22:00 Pelax.
 - Uztaileak 25: 22:00 MICE.
- Tokia: Mikel Laboa plaza.

100 euroko bost sari jokoan, Hurbilagoren ekimen berrian

Usurbilen bizi eta erosteak 100 euroko bost opari dakartza uda honetan, Hurbilago Elkarteak abiarazi duen “Zure fidelitasunak saria du” ekimen berriari esker. Usurbilgo ostalari eta merkatarien bilguneko saltokietan erosketak egiterakoan, kanpainako eskuorri bat jasoko duzue eta bertan itsatsi ahalko dituzuen pegatinak. 10 euroko erosketak bakoitzeko pegatina bat eskuratu ahalko duzue.

Pegatina bidez

Herriko saltokiekin duzuen fidelizazioa bermatzeko erosketak denetarik dendetan egin beharko dituzue. Eskuorriko hutsu-



Bost sarituek 100 euroko erosketak bale bana eskuratuko dute.

neak betetzeko 20 pegatina lortu beharko dituzue janari dendetan, hamarna eskuratu beharko dituzue moda eta osagarrien zein edertasun eta osasunaren komertzioetako erosketetan.

Bosna pegatina aldiz, liburu eta jostailu dendetan eta etxeko artikulak saltzen dituztenetan.

Xehetasunak, eskuorrietan

Eskuorrian bertan duzue pe-

gatinak eskuratzeko zenbat erosketa eta non egin behar dituzuen. Beharrezko pegatina guztiak itsastea lortzen baduzu, fidelizazio eskuorri edo kartilla honetan zuen datu pertsonalak idatzita, Usurbil Optikara eraman. Hala egiten duten lehen bost lagunek, bakoitzak Hurbilago elkarte kide diren saltokietan xahutu ahalko duen 100 euroko erosketa balea eskuratu ahalko du. Lehenengo bost sarituak agertzen direnean bukatutzat emango du kanpaina Hurbilagok. Eta iragarri dutenez, irailan ekimen honen edizio berri bat abiaraziko dute.

Pirinioetako irteerarako izen ematea ixtear da

Astelehenean, uztailaren 15ean itxiko du Andatza M.K.K.-k irailaren 21etik 22ra antolatu duten Pirinioetako asteburu pasarako izen ematea.

■ Noiz: irailak 21-22.

■ Zonaldea: Estos bailara.

■ Ibilbidea: 5 hiru milako egingo dira. "Estoseko bailara joango gara, Clarabides eta Gías mendietatik barrena 5 hiru milako egiteko asmoz: Pico Clarabide Oriental (3012 m), Clarabide Central (3020 m), Clarabide Occidental (3005 m), Pico Gías (3011 m) eta Gías Este (3002 m). Estoseko aterpean ostatua hartuko dugu".

Behin behineko egitaraua:

■ Irailak 21: 6:00etan Usurbildik autobusez abiatu. Bidean geldialditxo egin ondoren, Estoseko aparkalekura iritsi eta Estoseko aterpera abiatu.



5 hiru milako egingo dituzte Estos bailaran. Tartean, Clarabideko gailurra.

■ Irailak 22: Estos Aterpetik Clarabides eta Giaseko gailurrak egiteko asmoz abiatu. Ondoren, aparkalekura jaitsi autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera itzulera.

Prezioak:

■ Andatzako bazkideek: 37,50 euro FEDME gehigarria dutenek, 45 euro FEDME gehigarria ez dutenek.

■ Andatzako bazkideak ez direnek: 77,50 euro FEDME gehigarria dutenek, 85 euro FEDME gehigarria ez dutenek.

Izen ematea:

Uztailaren 15a baino lehen, ordainketa egin Andatzako kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321 Kutxabank:

2095 5069 0710 6848 9805

Oharrak:

- Plaza kopuru mugatua.
- Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte.
- Lehenetsuna Andatza M.K.K.-ko bazkideek izango dute.
- Andatza M.K.K.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea".

Informazio gehiago:

andatza.com

Antolatzailea: Andatza M.K.K.

Donosti Cup Haranen



Danenakoekin neurtuko dira usurbildarrak asteazken honetan.

Nazioarteko futbolarien topalekuan bilakatu dira Harane eta Zubietako futbol zelaia egunotan, jokoan baita aste hasieratik Donosti Cup txapelketa. Parte hartzaileen artean dira Usurbil F.T.-ko kadeteak. Egunotan jokatu dituzte lehen faseko partidak, Independiente Madrid taldea, AEB-tako SOCA

eta Danena KE taldeen aurka. Asteazkenean arte lehen faseko neurketak jokatu dira, azken fasekoak ostegunetik larunbatera ospatuko dira; ostiralera arteko partidak Haranen 9:00-21:00 artean eta Zubietan 15:30etik aurrera iluntzera arte. Finalak aldiz, larunbatean 10:00-14:00 artean Zubietako zelaian.

Judo topaketa



Urtero bezala, topaketa batekin amaitu zuten denboraldia.

Gaztetxoan arteko urteroko topaketarekin agurtu zuen Usurbil Judo Klubak ekainean,

2018-19 ikasturtea. Oiardo Kiroldegian ospatu zuten jardunaldiaren baitan izan zen.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaueus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil

langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska baten bila gabiltza orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueto ku-

deatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetoan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxea-rekin. Betebeharrak: Profesional-tasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Nes-

Heriotzak

Alfonso Vidal Hermo

84 urterekin hil zen uztailaren 4an Usurbilen



Mari Carmen Echaveguren Aramburu

80 urterekin hil zen uztailaren 6an Usurbilen



OHARRA: Astebete barru argitaratuko dugu oporraldi aurreko azken NOAUA!. Ordurako ohar edo zorian agurrik baduzue, uztailaren 15a baino lehen helarazi. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaueus Uda osteko lehen NOAUA! irailaren 6an.

ka jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen.

Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan

lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

DBH 3ko, 2. eskuko liburuak erosi-ko nituzke. Tel. 943 246 115

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen

ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko tolo marroia eta ari-
ketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat baldu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 Izaro.

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 11	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 13	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 14	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Astelehena 15	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteartea 16	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 17	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Uztailak 11 - Uztailak 21

Osteguna 18	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 19	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

11 osteguna

- **Laboaren Uztaila: Satelitik kontzertuan.** 22:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Jakin Jardunaldiak**, UEU-ren udako ikastaroen baitan. Ikus 5. orrialdea.

12 ostirala

- **Jakin Jardunaldiak**, UEU-ren udako ikastaroen baitan. Ikus 5. orrialdea.

13 larunbata

- **Sagarrondotik Sagardora ikastaro praktikoa.** 09:00-13:00 Potxoenean.
- **Harria Hitz bisita gidatua eta tailerra Zumeta Arte Estudioan.** 10:00etan irteera frontoitik (aurretik eman behar zen izena).

Satelitik eta Pelax, Laboaren Uztailean

Dama eta Borrokan taldeetako musikariak daude Satelitik egitasmoaren atzean. Euren zuzenekoetan "musika akustikoa, akordeoia eta kontrabaxua nagusi dira", musikazuzenean.com web orrialdean irakurri dugunez.

Uztailak 11 osteguna

- 22:00etan Satelitik taldea, Mikel Laboa plazan.

Datorren astean, Pelax

Unai Pelayo donostiarra da Pelax. 2013ko



Argazkian, Pelax.

azaroan hasi zen lehen bakarkako emantaldiak eskaintzen. Uztailearen 18an osteguna Usurbilen arituko da. 22:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Larunbat honetan, Harria Hitz bisita gidatua

Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokatutako papera ezaugaraztea du helburu bisitak. Bisita doakoa da baina aldeztu aurretik eman behar da izena. Larunbat honetan, goizeko 10:00etan abiatuko dira frontoitik. Arratsaldean, tailerra umeentzat.

Informazioa eta erreserbak: 688818017 info@kultour.pro

Sagarrondotik sagardora ikastaroa

Josu Osak "Fruitu arbolaren udako edo begiko txertaketa" izeneko hitzaldia eskainiko du larunbat honetan Potxoenean. Ordutegia: 9:00-13:00.

Izen ematea, informazioa:

943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus

Datozenak

Jai gehiago ate joka

Usurbilgoen ostean, festa giroak etenik ez du izango hilabeteotan. Adi hurrengo festen datei. Xehetasun gehiago datorren astekarian:

- Zubietako jaiak: uztailak 24-31.
- Urdaigako jaiak: abuztuak 2-4.
- Atxegaldeko jaiak: abuztuak 23-25.

Gipuzkoako Errebote Txapelketa, finalera begira

Hiru jardunaldiz osaturiko itzuli bakarrek Gipuzkoako Errebote Txapelketa jokoan da asteotan. Behar Zana, Txost eta Zubietako ari dira parte hartzen. Igande honetan jokatuko da hirugarren jardunaldia hain zuzen, Txost eta Zubietaren artean. Sailkatutako lehen eta bigarren taldeek finala hilaren 21ean jokatuko dute, goizeko 11:00etan hasita Zubietan.



Eguraldia arazo ez bada, finala uztailearen 21ean jokatuko da.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ARATZ

zabaleta anaiak



30 urtez baserritar eta arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

MATRIKULAZIOA

DOKUMENTAZIOA:

- NAN
- Ikasketa agiria
- Karnet argazkia
- Kontu korronteko 20 zenbakiak

UZTAILA
11 - 17

ORDUTEGIA

08:00-18:00

OSTIRALA

08:00-14:30

www.lhusurbil.eus

31 ETXEBIZITZA USURBILEN, UGARTONDO AUZOAN



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa



Garajea

943 30 29 20

www.sukia.com



Zure etxean zaude

Finantziatuta



Arrazoi teknikoak, juridikoak edo komertzialak direla eta, informazio horiek aldatetak izan ditzake.